

# LURRALDEETAKO TXORI MOTAK (I)

Eisenhower gudalburuak, guda egiteko Italia'ra eldu zanean, bere anaiari idatzi eutsen Ameriketara eskolaliburu bat eskatzeko, Italia'ko txorien barriak eukazan liburu zan.

Ornitologia esaten dautsoe egazti-iztiari. Millaka dira munduan ornitologoak eta euren artean batzarrak egiten dabez, Breña'ko ondartzetan. USA'n be egiten dira olako batzarrak: egun guztian ibiltzen dira txoriak ikusten eta gero batzarrean aurkeztu ikusi dabena. Txori kantaririk geien eroan dauzanak 173 eroan dauz, egazti bakoitxak bere izena latinez daua.



## URIETAKOAK

Gure balkoietan txio-txioak entzuten dira. Etxe-txoriak dira.

Antxiña Nilo ta Kaukaso-aldean ikusten ziran, nekazariakaz batera. Olako txorien arerioa, kaleetan ugari dabillen usoa da, txori zikiña, baiña biotz leialekoa ta apaiña. Antxiñako etxeen ordez, orma zarrak daukez.

Usoak ugari Benezia'ko San Markos'en: Lenengoak uso albistariak izan ziran eta Kreta'ko gudaren barriak ekarten ebezan, XIII gizaldian.

Paris'en XVIII gizaldian Latude espetxeratuak ekarri ebazan bere leiora, Bastilla alaitzeko. Urietan zozoak ugari ikusten dira.

Maiatzetik aurrera etxeetan elaiak (enarak) daukaguz. Orduko 200 km. ibiltzen dira zomorroak arapatzen.

Zugatz-arteetan be ikusten dira zozoak.

Ipar-Ameriketako uri aundietan, "raskaziolo"etan, zubi aundietan, pakebote-artean, kaietan eurretan, dana dago etxe-txoriz josita, emendik eroanak zozoak dira eta bertako txoriak ondo alkartzen jakez. Zapelaitzak (cernícalo) uxatzen dauz goiera aundiko etxeetan beste txoriak.

Alaitasuna emoten dabe, janaria ta ezkutua ordaintzeko.

## LORATEGIETAKOAK

Erregeak ekarten ebezan lorategietara txoriak, ondo ordainduta.

Goizeko ozkirriagaz lorategian ba'gabiltz, errez entzungo doguz txoriak eguzkiari ondo-etorria emoten: Buru-baltz edo "titipeak" eta, esnea oztuten be ba-dakie. Txori ederra isats-gorria, abeslari gozoa. Txepetxa oso txikia da baiña urtero amabi abi egiten dauz. Amar gramo da bere aztuna.

Baso aundiak misterio aundiak gordeten dauz eta or daukaguz txori abeslari asko eta asko euren kantutik eza-gutzeko.

Txantxa gorria da bat, abeslaririk onena, sastraka-artean agertzen da bere papar gorria. Neguan leio-inguruetan ikusiko dozu, larri.

Okillak, zugatz-enborretan zuloa eginda, barruan egiten dau abia. Gero mozoloak joaten dira ara biziten.

Beste batzuk abar-arteetan egiten dabez abiak.

**Olazar'tar Martin'ek**

## BETIRAKO DAGO JAUNA

Beti batirako, da  
Jainkoaren laguntza  
gizonen bizian,  
Aitak ezin dauz itzi,  
bertan bera, gizonak  
lurraren zorian

Lurra baiño geio da  
giza-seme argia  
bizitza onetan,  
buru ta biotzez  
laguntzak bear ditu  
menderen mendetan

Giza seme leiala  
Aitarengana doa,  
biotzez, eskian,  
Aita gerturik dago,  
errukiz, laguntzeko  
semeei bidian.

Aitak ezin ba'ditu  
semeak gaizki ikusi  
lurraren gainean,  
gure Aita onenak  
ezin gaitu ikusi  
ondamendipean.

Seme guztiak, pozez,  
lurrean ikusirik,  
poztuten da Aita,  
guztien ona nai dau,  
semeak ikusirik  
zorian erara.

Lur biribil ontako  
seme-alaba danak  
zori-nairik dagoz,  
ta zerua begira  
gizadi onetara  
maitasun poz-giroz.

**Paulin**